

Caia: Glukosa neurtzea

IRAKASLEA

IKASLEAK

1/2



www.fundaciondiabetes.org

Litekeena da zure ikaskideren batek MP3 baten edo mugikor baten itxurako tresna bat izatea.


Caldetuz gero, odolean zenbat **glukosa** duen neurtzeko balio duela esango dizu ("azukrea neurtzeko" balio duela esango dizu, agian).

Nola?



Boligrafo itxura eta barnean orratz bat duen tresna batekin ziztatzen du hatza. Ondoren, hatzetik odol-tanta bat ateratzen du.

Plastiko zati bat (tira erreaktiboa) sartzen du makinan eta ondoren odol-tanta bat jartzen du bertan.



Segundo batzuen ostean zenbaki bat agertzen da pantailan. Hori da odolean duen glukosa-kopurua.

Caia: Glukosa neurtzea

IRAKASLEA

IKASLEAK

2/2



www.fundaciondiabetes.org

Odolean glukosa-kopuru bera izan behar dugu beti gutxi gorabehera.

Pertsona batek diabetesik ez duenean, pankreak neurtzen du glukosa-kopuru hori eta behar duena baino ez du sortzen.

Zure ikaskideak diabetesa duenez, berak neurtu behar du odolean zenbat glukosa duen eta zenbat intsulina behar duen.

Hori kalkulatzeko nahiko zaila izaten da eta erizainak edo gurasoek irakasten diote.

- Jan duenak zenbat **glukosa** emango dion eta
- ariketekin zenbat gastatuko duen jakin behar du gutxi gorabehera.

Horrela jakingo du zenbat **intsulina** injektatu behar duen.

Diabetesaren ondorioz odolean duen glukosa-kopurua aldatu egiten da, eta horregatik neurtu behar du egunean zenbait aldiz.

Hainbat lekutan ikusiko duzu neurketa horiek egiten: jolas-orduan, Corputz Hezkuntzako klaseetan, jangelan, etab.

Batzuetan klaseetan ere neurtu behar izaten du glukosa. Batez ere oso glukosa gutxi duela uste badu (hipogluzemia).

Ez du minik ematen, ziztada txiki bat baino ez da. Arrosa baten arantza sartzeak baino min gutxiago ematen du.